

**A.16.1. IBUR ERREKA****A.16.1. IBUR ERREKA**Azalera: 45.954 m<sup>2</sup>**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Industrialde berri hau udalerrian hego-mendebaldean dago, Eibar, Elgeta eta Zaldibar udalerrien artean. Horregatik, proposamenak ez du balio loteslerik izango udalerririk eta foru diputazioek onartzen duten arte.

Antolamendu proposamenari, hiru udalerritan aldi berean bideratu den eremua garatzeko Plan Partziala erantsi zaio.

**II. Hirigintza-Erregimen Orokorra**

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan Ibur Eureka Sektorearen Plan Partzialeko 3.5. planoan zehazturiko lursail bakoitzeko eraikinen kanpoko mugako lerrokadurei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuenak Ekonomia Jarduera Arruntan Erabilera da: Hirigintza Arautegia agiriko 8.3.09. Artikulua.- Ekonomia Jarduera Arruntan Erabilera (8. erabilera).

Ibur-Ereka Sektoreko Plan Partzialean, "Zonakatzearen eta Lur-Zatiketaren Baldintzetako Industria-erabilera" 6.artikuluan arabera: Ibur-Ereka Sektoreak industria-erabilera izando du.

Industria-jardueren barruan, honako erabilera hauek hartuko dira kontuan:

- Merkataritza eta zerbitzu erabilera: sektoreko industria-jardueren lotutako hirugarren sektoreko jarduerak.
  - Bulego-erabilera: industria bakoitzaren jardueren lotutako bulego-erabilera baimentzen dira. Bulego-erabilera soilak izango duten eraikinak ez dira baimenduko, ez eta eraikinean bertan garatzen den industria-erabilera lotu gabeko bulego-erabilera lokalak gaitzea ere.
  - Merkataritza eta gizarte ekipamendurako erabilera. Interes orokorreko instalazioak, industria-jardueren zerbitzurako elementu gisa.
  - Etxebizitza-erabilera: sektorearen barruan, industria baten instalazio osagarri gisa baino ez da baimentzen etxebizitza-erabilera, zaintzailearen edo atezainaren etxebizitza gisa alegia (erabilera hori debekatuta dago Zaldibarko udalerrian).
- Lursail bakoitzaren industria-erabileraen barruan, jarduera osagarriak bane hartuko dira, hala nola atari zabaleko biltegitzea, karga, deskarga, ibilgailuen maniobra, aparkalekua eta antzeko beste batzuk.

**III. Ordenazio Xehatua**

Esparru hau Planeamendu Gehituko Eremu bati dagokio, eta horren ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da:

**API 06 IBUR ERREKAKO PLAN PARTZIALA**Azalera: 45.954 m<sup>2</sup>

Planeamendua:

\* Eusko Jaurkitzako Etxebizitza eta Gizarte gaietarako Kontseilariaren 2005eko otsailaren 22ko Aginduz behin betiko onespina eman zitzaion Ibur Erreka industria sektorearen Plan Partzialari; 2005eko irailaren 21eko 180. zenbakiko EHAA-n argitaratu zen.

Eremuaren zonakatzeko xehakaturiko baldintzak, Ibur Eureka Sektorearen Plan Partzialeko 3.3. planoan "Zonakatzeko xehatua" xedatutakora egokitu beharko dira, honako era honetan:

- \* Industria-erabilera lursail berriak.
- (A, B, C, D, E, F, G, H, I, J, K, L, M, N, O, P, Q, R, S, T, U, V eta W lursailak) (jabetza pribatua)
- \* Industria-lursail finkatuak (jabetza pribatua)
- \* Interes publikoko zerbitzuen sistemak (jabari eta erabilera publikoa)
- \* Merkataritza-ekipamenduko lursailak (jabari eta erabilera publikoa)
- \* 1. lursaila.
- Gizarte-ekipamenduko lursailak (jabari eta erabilera publikoa)
- \* 2. lursaila.
- Kirol-parkea (jabari eta erabilera publikoa)
- \* Espazio libreen sistema (berdeguneak) (jabari eta erabilera publikoa)
- \* Tokiko bide-sistema (jabari eta erabilera publikoa)
- \* Ibai-ubideen sistema orokorra (jabari eta erabilera publikoa)
- \* Tokiko bide-sistema (a-8 autobidea eraikitzeko desjabetutako lurak)